

Kaixo familia

Jarraian aurkeztuko dizuegun planteamendua Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako jarraibideetan, Oarsoaldeako lan mahaian egindako lanketan eta Lizeoak dituen baliabideetan oinarrituta dago. Ikasturtea horrela hastea proposatzen dugu.

Ikasle guztiak urriaren lehenengo astean hasiko dira, eta hasera batean behintzat, maiatzera bitartean luzatuko da. **LH3. Mailako ikasleen kasuan**, ekainean sustapenak egi ez genuenez, irailean begiraleekin jarduera bereziak egingo dituzte eskola ordutegian (izen ematea amaitu aurretik), eskola kirola zer den ikus dezaten.

Izen ematea, irailaren 19a bitarte luzatuko dugu ondorengo [formularioa](#) betez.

Taldekatzeak aurten ere gelaka egingo dira.

Maila bakoitzak astean bitan izango du lan saioa ikastolan berriro ere.

- Benjaminak: 3. eta 4. mailako ikasleak (Astelehen eta Asteazkenetan)
- Alebinak: 5. eta 6. mailako ikasleak (Astearte eta Ostegunetan)

Autobusaren **ordutegia** mantenduko bada ere (autobusa 18.00etan aterako da Lizeotik), saioen denbora banaketa aldatu egiten da. Hauxe izango da, oro har, egunerokoaren antolaketa

16.25ean begiraleek umeak gelan jasoko dituzte. Beraiekin batera egingo dute merienda. Merienda ume bakoitzak ekarri beharko du.

16.45ean kirol saioa hasiko da.

17.45ean itxiera saioa. Eguneko saioaren inguruko hausnarketa.

17.55ean autobusera

Hasera batean behintzat, ez da aldagelak eta dutxak erabiltzeko aukerarik izango. Beraz, **umeak kirola egiteko arropa erosoarekin jantzita** etor daitezen eskatzen dugu.

Asteburuetako saioak. Oarsoaldeako lan mahaia proposamen berriak prestatzen ari da, eta zehaztasun gehiago izatean emango dizuegu honen inguruko informazio gehiago.

Kuota. Berriro ere bi saioak berreskuratu ditugunez, hilabetero 13,5€ko kuota kobratuko dugu (azaroko kuotarekin hasiko da kobraketa eta ekainekoarekin amaituko da). Uneren batean planteamendua aldatuko balitz, kuota ere aldatu liteke. Artezkarriz adostuko litzateke.

Arduraduna. Aurten ere Lide Lujanbio izango da Eskola Kiroleko arduraduna.

Higiene neurriak. Eskola Kirolean dauden bitartean, ikasleen ikastolako ohiko jardunean betetzen dituzten higie neurri berak beteko dituzte.

Guraso bilera ere saioak hasi aurretik izango da. Ikasleek eta gurasoek, beraz, izango duzue zuen zalantzak non argitu. Emango zaizue honen inguruko informazio zehatzagoa ere.

Gainerako mailetan ere Lidek edo tutoreek antolaketaren azalpena emango dute datozen egunetan.

Familiaren batek argibide zehatzen bat nahi badu ondorengo helbidean egin dezake galdera, eskolakirola@lizeoa.eus

Milesker zuen arretagatik, adeitasunez

Lide Lujanbio eta Edurne Urkiola

Pasaia Lezo Lizeoko Eskola Kiroleko arduraduna eta zuzendaria